

Karmele Rotaetxe

«Bizimodu azkarrera egokitu behar dugu euskara»

Bilboko Arte Ederretako Museoan lotu naiz Karmele Rotaetxerekin (Bilbo, 1932); kafetegian, zehazki. Ebakia eta ur basoa eskatu du beretzat, baina gaztelaniaz. Harritu egin nau horrek Ohorezko Euskaltzaina den neurrian, eta are gehiago zerbitzaria gaztea dela kontuan hartuta. “Hiriak ez dira euskaldundu”, esango dit gero.

ANDER EGILUZ

Argazkiak: Iñigo Azkona



UTOPIAK pragmatismoarengatik aldatzeko nahia ondorioztatzen da EHUKo irakasle emeritu honen hitzetatik. Euskaldun berria da, eta agian horregatik bere iritzi zenbaiten hautsak harrotu izan dituzte, gela itxi bateko leihoa zabaltzerakotan aire freskoak giro ibilgea mugitzen duen moduan.

Eskerrak eman dizkio zerbitzari gazteari, eta honek, euskaraz, ez horregatik. “Ezkorra naiz euskararekiko, baina baikorrak izan behar dugu”.

Eusko Jaurlaritzaren IV. Inkesta Sozio-linguistikoaren emaitzek diote euskararen ezagutzak gora egin duela.

Ezagutzak gora egin du, bai, baina erabilerak ez; eta egin badu, oso gutxi. Horixe da arazoa. Jakintza handituko da, gero eta gehiagok jakingo dute euskaraz, herri txikietan euskarak prestigioa izango du, baina hirietan zer? Hiriak ez dira euskaldundu. Gure artean komunikatzeko gaztelania darabilgu, eta

Iparraldean frantsesa. Hori da errealitate motza.

Zelan heldu gara egoera honetara?

Gernikako Estatutuan euskara ofizial egin zenerako, abiapuntua bazen txarra: hiztun gutxi eta domeinu altuetan prestigiorik ez. Honetaz gain, euskara batuaren arauak sortzerakoan, eta hizkuntza-aren inguruko legeak egiterakoan, ez zen egin beharreko guztia ondo egin. Legeek euskara eta gaztelania maila desberdinetan jarri zituzten eta horrek ez zizkion gauzak batere erraztu euskarari.

Baina legeen aurretik, batuaren arauak sortzerakoan, akatsak egin ziren. Onartutako forma batzuk oso gaitzak dira erabiltzen; "litzaizkigukkeen" eta horrelakoak ez dira XXI. mendean erabiltzeko formak. Arin bizi gara, presaz. Eta honi gehitu behar zaio atzizkidun hizkuntza dela. Adibidez, "Bilbora joan naiz zergatik erosketak egin behar nituen"; zergatik hori -lako atzizkiaren ordeztu erabiltzearen joera hizkuntza atzizkidun guztietan eman da, gurean izan ezik. Honek guztiak zaildu egiten du erabilerara gazteen artean. Forma batzuk modernizatu behar genituzke. Gure hizkuntza urte luzez egon da geldia, hiztun berriak gabe, eboluzionatu barik. Euskara gaur egungo bizimodu azkarrera egokitu behar da. Bizitasuna falta zaio euskarari, eta batuari euskalkiak.

Euskaltegiek ez dute horretan asko laguntzen. Bizkaiko euskaltegien adibidez, bizkaiera, hutsaren hurrengo da.

Baina hori ez da euskaltegien errua, aldatu behar dena euskara batua da: aditzezko forma batzuk, nor-norinork famatua... Beste herrialde batzuek, beren hizkuntza munduratzeko erraztu egin dute: *Français Fondamentale, Español Fundamental, Basic English...* ez dakit guk zergatik ez dugun gauza bera egiten. HABEK, adibidez, lan handia egin du ikerketa arloan, baina jende asko dago horretan lanean, eta inork ez du erabiltzeko euskara errazagoa prestatu, eta hori da nire ustez egiteke dugun gauzarik premiazkoena... agian beranduegi da dagoeneko.



Euskaltzaindiak ere ez die pedalei eragiten gizartearen erritmoan, beti dabil atzetik, beti berandu... hamai-ka adibide bururatzen zaizkit.

Euskaltzaindia ez da batere modernoa...

Zure ikuspuntua aurrerakoa da, eta bertan zaude...

Nik ez dakit aurrerakoa naizen, baina jaramon gehiago egin beharko litzaiguke euskaldun berrioi, esfortzu handia baita euskara ikastea eta ez da behar beste kontuan hartzen.

"Herrialde batzuek, hizkuntza munduratzeko erraztu egin dute:

***Français Fondamentale, Basic English...* ez dakit guk zergatik ez dugun gauza bera egiten"**

Baina euskaldunon mentalitatea ikustea besterik ez dago; erabat utopikoak gara. Pentsatu, adibidez, ea politikan utopikoak ez garen. Eta euskararekin berdin. Batua sortzen hasi zenean, hizkuntzarik puruena nahi zen egin, Axularren formak errekupe-ratuz. Eta hori ezinezkoa da, eta ez da ona. XVI. mendeko hizkuntzak ez du XXI. menderako balio. Orduan, hala-ko modelo perfektua hartu ordeztu, zergatik ez ote zuten hartu Pompeu Fabrak katalanarekin erabili zuena? Fabrak Bartzelonako katalana hartzen du oinarri, baina beste barietateak ere onartzen ditu. Euskara batua askoz ere itxiagoa da, ez du ezer onartzen. Eta hori ez da zuzena.

Euskara batua perfektuaren ametsa ez da bete, jakina, utopia zelako.

Eta beharbada horregatik ere gauzak ez dira atera guk gura genuen bezala.

Euskarari mundura zabaltzea, beste hizkuntzekin nahastea falta zaio? Kataluniako telebistan katalana eta gaztelania uztartzen dituzte, adibidez, eta hori euskararekin ikustera ez gaude batere ohituta.

Batere, baina normala izan beharko litzateke nahastea eta biak batera erabiltzea; azken batean gaztelania ere leku guztietan dugu.

Gauza horien guztien ondorioztatu dira azkenean bi hizkuntza komunitate: euskalduna eta erdalduna. Eta txarrena da ez ikusiarena egiten diotela elkarri. Erdal komunitateak euskararengandik jasotzen duen gauza bakarra lanpostuak oparitzen dituela baino ez da. Dena da negatiboa. Eta euskal komunitateak ez du banatzen espainola eta bere inguruko ideiak. Komunitateek ez dute elkar ezagutzen. Honengatik guztiagatik esaten dut komunitate bien artean ebaki bat dagoela; gizartea ez da bat, bi dira. Gazteen artean badaude lotura gehiago, baina ez ehuneko ehunetan. Asko saiatzen dira euskara ikasten, baina askok uzten dute, esfortzu handia delako eta beharrezko ez dutelako.

Elebitasuna ote da bi komunitateen arteko lotura?

Bi komunitateek bi hizkuntzak jakingo balituzkete askoz hobea, baina horretarako borondate ona behar da. Euskaldunok hain puristak izateari utzi behar diogu, eta hau lurralde elebiduna izanda, bakoitzak esfortzua egin behar luke guztiz integratzen. Bi komunitateek elkarrengana hurbiltzeko esfortzua egin behar lukete. Berba egin behar da honetaz guztiaz, eztabaidak sortu. Dogmak ez dira onak, ezertarako ere ez.

Hala ere jakin behar dugu gaur egungo egoera politikoan bi hizkuntzak maila berean jartzea utopiko dela erabat. Aurrera ondo atera den hizkuntza politika bakarra Israelekoa izan da, estatu bat delako. Baina argi dago arazo asko konponduko liratekeela gizarte osoa elebiduna izango balitz, eta horretarako badaukagu zereginik. ■